

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 163/2020 Erabakia, martxoaren 17koa. Onestea Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoko lanpostuen zerrenda aldatzea

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 27ko 93/2018 Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaion Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoko indarreko lanpostuen zerrendari.

Zerbitzuaren garapenak, bilakaerak eta finkatzeak adierazten du beharrezkoa dela egokitzea lanpostu zerrenda hori.

Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren lanpostu zerrendan, dotazioburuen bi plaza ageri dira (1105.907 eta 1105.908), zeinak Langraizko SISEUaren bi txandei baitagozkie; hau da, bi dotazioburu ageri dira txanda bakoitzeko aldi berean, SISEUa hasieran suhiltzaile etxe nagusia zelako eta bi dotazio oso behar zituelako.

Orain, bi plazak amortizatu behar dira. Aldaketa horren arrazoia da premia dagoela homogeneizatzeko Langraizko SISEUaren txanden osaera, eta txanda bakoitzean dotazioburu bakar bat geldituko da.

Bestalde, inspektoreen beste plaza bat sortuko da (1001.902), batez ere industria, ikastetxe eta beste toki berezi batzuetako suteen prebentziorako eta zerbitzuko langileen prestakuntzarako.

Bukatzeko, zuzendaritzako idazkariaren lanpostuko plaza bat sortuko da (1000.001), erakunde autonomoko zuzendaritza-kudeatzailetzari lagundu eta horrek dakartzan administrazio egiteko guztiak egiteko.

Horregatik, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren Kontseiluak proposaturik, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onspena ematea Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren lanpostu zerrenda aldatzeari (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua): I. eranskinean dauden lanpostuak amortizatu eta, aldi berean, II. eranskinean daudenak sortu.

Bigarrena. Erabaki honek Foru Gobernu Kontseiluak onetsi eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, nahiz eta ALHAOn geroago argitaratu.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 17a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Oreekaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA



I. ERANSKINA

AMORTIZATUTAKO LANPOSTUAK

KODEA	LANPOSTUA	HERRIA	TAL.	DO	ESKALA	AZPIESKALA	KLASEA	KATEGORIA	TITULAZIOA	ADMIN.	HE	DERR. DATA	BERARIAZKO OS.	HOR. ERA	GIDABAIMENA
1105	Dotazioburua	Langraiz Oka	C2	19	Berezia	Zarbitzu Berezitak	Su Izailzean	Kalbon	1	AFS	2		25.632,60	L	CE
1105	Dotazioburua	Langraiz Oka	C2	19	Berezia	Zarbitzu Berezitak	Su Izailzean	Kalbon	1	AFS	2		25.632,60	L	CE



II. ERANSKINA

SORTUTAKO LANPOSTUAK

KODEA	LANPOSTUA	HERRIA	TAL.	DO	ESKALA	AZPIESKALA	KLASEA	KATEGORIA	TITULAZIOA	ADMIN.	HE	DERR. DATA	BERARIAZKO OS.	HOR. ERA	GIDABAIMENA
1000	Zuzendaritzako Idazkaria	Gasteiz	C1	17	Orokorr	Administratiak			2	AFS	2	01/01/2019	18.197,06	L	
1001	Inspektorea	Langraiz Oka	A1	25	Berezia	Zerbitzu Berezia	Su izalzea	Inspektorea	6	AFS	3		36.537,20	L	CE